

Sexu- eta genero- disidentzia eta itzulpena: *Mari-mutil handi baten bluesari buruzko* azterketa baten laburpena



IRATI BAKAIKOA GARCIA

Artikulu honek itzulpenaren eta genero-identitate disidenteen arteko loturak mahaigaineratzea du helburu, master amaierako lan baten kronikaren bidez. Itzulpenaren teoria feministen bidetik kuir itzulpen-ikasketetara hurbildu, eta, Touryren itzulpen-arauen bidez, corpusaren zenbait elementu aztertu dira, makro-mailatik hasi eta mikro-mailara, pertsonaia nagusiaren autopertzepzioa, desira eta sexu-praktikak nola irudikatu eta itzuli diren erreparatzeko. Hizkuntza identitateak eraikitzeko eta errealitate berriei tokia egiteko ezinbesteko tresna da, eta itzulpenak asko du esateko.



Hasierakoak

Itzulpena, bitartekoa izatetik harago, tresna ere bada. Aurreko ikasturtean, gaian sakontzeko aukera eduki nuen, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, Itzulpena eta Kulturarteko Ikasketen Unibertsitate Masterrean. Honako hau MALaren kronika izango da: zehatzago, Leslie Feinberg autorearen *Stone Butch Blues* (1993) nobelaren euskarazko itzulpenaren azterketa deskriptibotik ateratako uztia. Corpusari eta itzulpena inguratzen duten elementuei erreparatuz, itzulpenen eta sexu- eta genero-identitate disidenteen arteko lotura marraztea izan da helburu nagusia, eta, xeheago, bollera identitatearen ingurukoak nola itzuli diren aztertzea. Esan bezala, ikerketa-lan luze baten laburpena da honako hau; ziurrenik, gauza asko bidean geratuko zaizkit kontatu gabe, eta gainera aipatuko ditut beste hainbat.

Jakina da itzulpenak botere izugarria duela errealitatea ordezkatzekoan, baita, neurri berean, bigarren plano batean geratzen den hori mahaigaineratzekoan ere. Izan ere, generoarekin eta norberaren identitatearekin gertatzen den moduan, inguruko errealitateak baldintzatzen

eta zeharkatzen du itzulpena, eta bada lotura hizkuntzaren, itzulpenaren eta identitatearen erai-kuntzaren artean: hizkuntza boterearen tresna da, ez da ez neutroa ezta inozentea ere, eta haren bidez errealitatea adierazi eta munduak eraikitzen ditugu (Vidal Claromonte, 2008: 85).

Hitzen erabilera ez da neutroa izanen: identitate disidenteak aipatzen ditudanean, arau heterosexualetik kanpo dauden identitateez ari naiz. Beste era batera: arau hori bera ezbaian jartzen duten subjektuez. Hau da, gure hizkuntzak ematen dizkigun izendapenak baliatuz, subjektu hauetaz: bollerak, ez-binarioak, transak, marikak, kuirrak, mari-mutilak, soropilak, emazte-gizonak, mariokerrak, *et al.*

Corpusa

Azterketaren corpusak bi osagai nagusi ditu: Leslie Feinbergen *Stone Butch Blues* (1993) lanaren jatorrizko bertsioa, eta Fermintxo Zabaltzak egindako itzulpena, *Mari-mutil handi baten bluesa* (2018). Halaber, MALaren kontu teknikoengatik gehienbat, *Stone Butch Blues* (2021) lanaren gaztelaniazko itzulpena ere erabili nuen, corpus paralelo konparatibo gisa —hau da, konparatu bai, baina ondoriorik jaso gabe—.

Eleberriak Jess Goldbergen istorioa kontatzen digu, haren bizitzaren berrogei bat urte. Langile klaseko *stone butch* edo mari-mutil handi judua da Jess. Hala ere, genero-sistema binarioan sartzen ez diren pertsonaiak dira eleberriaren protagonistak: hain zuzen, genero-identitatea da istorioa eta pertsonaien bizitzak zeharkatzen dituen ardatza. Izan ere, Feinbergen eleberriak eragin handia izan zuen xx. mendeko Estatu Batuetako literaturan, eta sexu-genero arloan disidenteak garenon komunitateari eleberri kanoniko bat opari egin zigun.

Azterketaren metodologia, labur-labur

Azterketari heltzeko, itzulpen-ikasketa deskriptiboetako metodologia baliatu nuen. Lehenengo atala, marko teorikoa, hiru ardatzek osatu zuten: lehenik, itzulpen-ikasketa deskriptiboen kokapena; haien barruan, hiru azpiatal garatu nituen, hots, (1.1) Touryren itzulpen-arauak, (1.2) Genero- eta itzulpen-ikasketak, eta (1.3) Performatibitatea, identitate disidenteak eta itzulpena. Bigarrenik, bollera identitatearen errepresentazioari heldu nion: (2.1) Jatorrizkoaren testuingurua, (2.2) Bollera identitatea eta horrek dakarren maskulinitate-eredua, eta (2.3) Mari-mutil, *femme* eta *stone butch* identitateak. Hirugarrenik, itzulpena jaso zuen kultura-sisteman jarri nuen arreta, hau da, (3.1) Itzulpenaren testuingurua, (3.2) Identitateak xede-kulturan duen testuingurua, eta (3.3) Euskal literaturan egindako errepresentazioak.

Behin marko teorikoa osatuta, bigarren atal nagusiari ekin nion, hau da, azterketa deskriptiboari berari, Touryk ezarritako itzulpen-arauak ardatz. Lau azpiatal izan zituen: (1) Feinbergen eta *Stone Butch Blues* jatorrizkoaren ezaugarrien kokapena, (2) Gaztelaniazko itzulpenaren kokapena, (3) Euskarazko itzulpenaren hasierako araua eta alde zureko arauak —hots, itzultzailea, argitaletxea, itzulpenaren helburua, hartzaileak eta harrera aztertze atala—, eta

(4) Corpusaren azterketa xehea, jarduerazko arauei erreparatuz. Halaber, corpusaren azterketa hori egiteko, arau matrizialei eta linguistiko-testualei erreparatu nien —batetik, azala, egitura eta atzeko azala; bestetik, itzultzailearen oharrak eta pertsonaien autopertzepzio- eta desiradierazpen eta sexu-praktikak—.

Azterketaren hezurdura: itzulpen-arauak

Hainbat kultura-sisteman, itzulpenek posizio periferikoa dute, eta gauza bera gertatzen da sexu- eta genero-identitate disidenteekin: genero-arau hegemonikoek gobernatutako gizarte-sistema batean, periferian kokatzera behartuta gaude. Bertan kokatzeak diskriminazioa eta onarpen eza dakartza, baita arau horietara nahitaez egokitzea ere, norberaren gorputza eta desirak onartuak izateko. Kasu bietan, beraz, kultura-arau nagusiekiko harremanak eragin zuzena dauka itzulpenek zein identitate disidenteek duten tokian.

Gideon Touryk (1995) txertatu zuen arauen kontzeptua itzulpengintzaren diziplinan, ikus-teko nola arau horiek itzulpena gobernatzen duten. Hala, Touryren arauak balio dute itzulpenaren inguruko faktoreak deskribatzeko, itzulpena dagokion testuinguruan kokatzeko eta itzultzaileak hartutako erabakiei erreparatzeko. Egindako azterketan, gainera, balio izan dute hautatutako corpusean bollera identitatearen errepresentazioari eta haren itzulpenaren azterketari heltzeko.

Lehenik, hasierako arauari erreparatu nion, hau da, itzulpenak hartutako norabideari, ego-kitzapenerantz eta onargarritasunerantz. Aurretiazko arauari heltzeko, hau da, itzulpenean eragina duten faktoreei, ezinbestekoa izan zen itzultzaileari, argitaletxeari, helburuari, hartzaileei eta harrerari erreparatzea. Azkenik, jarduerazko arauen txanda heldu zen: arau matrizialei heltzeko, azala, egitura eta atzeko azalak izan nituen ardatz, eta, arau linguistiko-testualak aztertze-ko, oin-oharrak eta bollera identitatearen errepresentazioak biltzen zituzten testu-zatiak.

Abiapuntua: itzulpenari buruzko teoria feministak

Itzulpenaren inguruan egindako hausnarketa feministei esker, badakigu itzulpena badela zenbait arau iraultzeko tresna: laurogeiko hamarkadaren inguruan, mugimendu feministaren eragina zela eta, genero-ikasketen eta itzulpen-ikasketen arteko loturak ezartzen hasi zen korrontea abiatu zen Quebecen, eta gaur egun arte iritsi dira garai hartan argitutakoak.

Zenbait egilek itzulpena zeharkatzen duten mekanismo patriarkalak eta diskurtso andro-zentrikoak agerian jarri zituzten hausnarketa teorikoen eta ikerketa-lanen bidez; une horretatik aurrera, itzulpena, bi kulturen arteko botere-dinamikak iraultzeko tresna izateaz gain, patriarkatua kolokan jartzeko tresna gisa aurkeztu zuten. Beste batzuen artean, Louise Von Flotow, Suzanne Lotbinière-Harwood (ikus Lotbinière, 1991; ezinbesteko irakurketa), Barbara Godard eta Sherry Simon izan ziren feminismoaren eta itzulpenaren arteko harremana ezarri zutenak.

Parez pare jarri zituzten itzulpenak jatorrizkoarekiko duen mendeko estatusa —baita itzul-tzaileak egilearekiko duen posizio hori bera ere— eta emakumeek historikoki gizonekiko izan duten mendeko egoera. Diziplinaren ingurukoak azaltzeko erabiltzen zen terminologia sexista —*belles infidèles* metafora¹ da ezagunena— zein emakumeak irudikatzeko orduan erabiltzen den hizkera sexista bera ere salatu zuten, baita emakume egileek egindako lanen hutsunea ere. Arrakalak irekitzeaz gain, egoera iraultzeko eta itzulpenean jarduteko hainbat estrategia proposatu zituzten; tartean, neutralizazioa, feminizazioa, konpentsazioa, bahiketa, testuaz bestelako elementuen erabilera eta egiletasun-paktua.²

Kuir itzulpen-ikasketak: hurbilketa bat

Itzultzaile feministek irekitako bideetatik heldu dira identitate disidenteeekin lotutako itzulpen-ikasketak. Alde horretatik, baliagarria da Butlerren (1990) performatibitatearen eta genero-identitatearen inguruko teoria itzulpen-ikasketetara ekartzea: autoreak azaltzen du hainbat patrioi behin eta berriro errepikatuz lortzen dela naturalizazioa; gainera, ohartarazi zuen subjektua eta identitatea hizkuntzarik gabe ez direla existitzen, hau da, aurretik ezarritako diskurtsoek ematen diotela izaera norberaren identitateari. Kontua da, gainera, errealtatean zentzua ahalbidez duten ekintza, arau eta konbentzio sozialak biltzen dituztela hitzek eta perpausak —imajina, esaterako, «gera deklaratu da» edo ezkontza batean «bai, nahi dut» esateak zer dakarren!—. Esan gabe doa diskurtso horiek hizkuntzaren bidez zabaldu egiten direla eta itzulpenak ezinbesteko papera jokatzeko duela.

Beraz, genero-identitatearen inguruan hausnartzeaz gain, arreta jarri behar da testuinguru kultural eta linguistiko batzuetan eta beste batzuetan, generoa nola itzultzen eta interpretatzen den jakiteko. Hau da, itzulpenak sexu-genero disidenteeon errepresentazioan eta eraikuntzan duen esku-hartzeari erreparatu behar zaio, itzulpenaren bidez hizkuntza- eta kultura-arau hegemonikoak betikotzen edo zalantzan jartzen diren aztertuz. Ildo horretatik, hainbat ikertzailek aztertu dituzte itzulpenaren eta sexu- eta genero-identitate disidenteeen arteko loturak, eta ondorioztatu dute itzulpenak identitatea, sexualitatea eta desiraren errepresentazioak baldintzatzen dituela.

Jarraian aipatuko ditudan lanak esparru akademikoan eta gizartean posizio periferikoa duten subjektuei buruzko informazioa biltzeko —baita sortzeko ere— egin zituzten autoreek; izan ere, posizio periferiko hori ez da halabeharrezkoa, eta azterlanok frogatzen dute identitate disidenteeen errealtate materialak aztertzeke ezinbestekoa dela itzulpenetatik datorren infor-

1. Perrot d'Ablancourtek egindako itzulpenetatik abiatuta Giles Ménagek sortutako metafora, «askeegiak» ziren itzulpenen erreferentzia egiteko.
2. Olga Castrok, *Género y traducción* (2008) lanean eta literatura-itzulpenaren esparruan, erdaraz, *neutralización, feminización, suplementación/compensación, metatextualidad, secuestro* eta *pacto especular* izenez aipatzen ditu itzulpen-estrategia feministak.

mazioa, baita askotan erabakigarria ere. Balio dezatela erreferentzia eta adibide gisa edo gaien sakontzeko, nahi duenarentzat.

Zenbait autore eta lan

Queering Translation, Translating the Queer (2018) lanean, itzulpenaren, sexuaren, generoaren eta identitatearen arteko loturak aztertutako zituzten hamalau autorek. Haien artean, Santaemiliak sexualitateari heldu zion, *Sexuality and Translation as Intimate Partners? Toward a Queer Turn in Rewriting Identities and Desires* kapituluan. Haren esanetan, sexuaren eta plazeraren hizkuntza itzultzea ez da inondik inora ekintza neutroa, ekintza politikoa baizik, eta inplikazio handia dakar maila erretorikoan zein ideologikoan, itzulpenak sexualitatearen inguruko diskurtso horiek zabaltzeko, isilarazi, egiaztatu edo perbertu baititzake. *Traducción e identidad sexual* (2018) lanean, itzulpena identitate disidenteak sortzeko tresna gisa hartzea proposatzen du Martínez Pleguezuelosek, identitate horiek estereotipoen bidez gorde baitira itzulpenetan hainbatetan. Butlerren performatibitatearen teoriari baliatuta, itzulpen-ikasketen garapena eta kuir identitateen azterlanen garapena alderatzen ditu.

Ikus-entzunezkoen arloan ere hainbat lan egin dira: Villanuevak eta Chaumek (2021) ikus-entzunezkoen itzulpenaren eta LGTBIQ+-ikasketen inguruko bibliografiaren berrikuspena egin eta 2000-2020 urteetan argitaratutako hogeita zortzi ikerketa enpiriko bildu zituzten. Villanuevak (2019) identitate disidentearen eta itzulpenaren arteko loturari gay maskulinitateetatik heldu zion, haren ustez maskulinitate-eredu horrek tokia behar baitu itzulpen-ikasketen barruan: gizonezkoen botere-posizioari dagokion produktu kulturalen (hala nola telesailak, filmak edo literatura) ekoizpena, zabalpena eta kontsumoa itzulpenaren bidez ere gauzatzen da; gainera, aztergaia bera handitzeko, maskulinitatea genero-posizio gisa ulertzea proposatzen du.

Identitate zehatzei dagokienez, Ártemis Lópezek (2019) pertsona trans eta ez-binarioen gaztelaniazko eta ingelesezko hizkera landu zuen, baita haren itzulpena ere. Bi estrategia proposatu zituen hizkera ez-binarioaren itzulpenarako: batetik, zeharkako hizkera ez-binarioa,³ genero-marka duten hitzen erabilera saihesteko —markarik ez duten hitzak erabiliz edo aldaketa gramatikalak eginez—, eta, bestetik, hizkera ez-binario zuzena, pertsona ez-binarioen presentzia esplizitua egiteko —genero-marka *-e* edo *-x* morfemen bidez ordeztuz—. Gainera, 2020an argitaratutako beste azterlan batean, hizkera horri dagokionez problematikoak edo okerrak diren lau itzulpenen kasua aztertu zuen, komunikazio eta itzulpen mailan dauden erronkak irudikatzen.

Ildo berean, Iturregui-Gallardok (2022) errepresentazio lesbikoak aztertu zituen *Permagel* eleberraren itzulpenean: identitate lesbikoa aztertu zuen jatorrizko nobelan, errepresentazioaren inguruko erreferentzia-marko bat ezartzeko eta errepresentazio horiek nola itzuli ziren ikus-

3. Lópezek *lenguaje no binario indirecto* (LNI) eta *lenguaje no binario directo* (LND) izena jarri zien estrategiei.

teko. Horretarako, desiraren inguruko adierazpenei eta sexu-praktikak biltzen zituzten zatiei erreparatu zien; gainera, Iturregi-Gallardok itzulpen-estrategien garrantzia azpimarratu zuen, ez bakarrik identitateen inguruko elementuak emateko tresna gisa, baita analisirako tresna gisa ere, elementu patriarkalak iraultzeko eta sexu- eta genero-elementu disidenteak erdigunean jartzeko (2022: 175).

Aipatu berri ditudan lan guztiak esparru akademikoan eta gizartean posizio periferikoa duten subjektuei buruzko informazioa biltzeko eta sortzeko egin zituzten autoreek; izan ere, posizio periferiko hori ez da halabeharrezkoa, eta azterlanok frogatzen dute itzulpenetatik datorren informazioa ezinbestekoa dela identitate disidenteen errealitate materialak aztertzeko, baita askotan erabakigarria ere.

Argi dago, beraz, itzulpen-ikasketen arloak identitate ez-normatiboen azterketari heldu diola. Nolanahi ere, bada bidea egiteke: identitate horien azterketa ezin da mugatu soilik sexu-orientazioaren planora, ezta identitate horien normalizaziora ere; izan ere, norberaren hautu sexual indibiduala izatetik harago, kolektibotasuna ordezkatzen dute.

Beste disidentziek zer leku?

Aurretik labur-labur aipatu ditudan lanak informazio-iturri nagusietako bat izan ziren MALe-rako. Lupaz begiratu ondoren, badira lan horietan antzeman nituen ondorio eta joera batzuk: lehenik eta behin, ikuspegiaren erdigunean, maiz, gizonen errealitateak eta gizonak egindako azterketak daude —sorpresa txikia—: ez dut uste garrantzitsuak ez direnik, baina badakigu subjektu bakar baten esperientziak ezin duela kolektibo oso baten errealitatea ordezkatu, eta badela garaia gizontasunaren mende ez dauden erreferentziak eta esperientziak erdigunera ekartzeko.

Bestalde, lesbiana/bollera identitatea aztertu izan denean, hura deskribatzeko orduan, esan ohi da historikoki heterosexualitatearekin edo gizonezkoen figurarekin lotutako metafozez «jabetzen» direla edo halakoak «erreproduzitzen» dituztela, eta horrek azterketa sakonago eta kritikoago baten beharra ematen du aditzera. Are gehiago, oso interes txikia dago gizonak erdigunean ez dituen maskulinitate-ereduetan, eta horrek, nahitaez, generoa ulertzeko, bizitzeko eta irudikatzeko ditugun moduak mugatzen ditu.

Euskaraz, zer? Mari-mutilak eta emazte-gizonak

Kontzeptu batzuk itzultzean, askotan, zaila da hitzok jatorrizko testuinguruan duten dimentsio bera mantentzea xede-hizkuntzan. *Mariokerrak* (2023) liburuan, Alvarezek eta Fernandezek zenbait bollera euskaldun elkarriketatu zituzten, hizkuntzaren eta identitatearen ingurukoak jasotzeko. Zenbait joera esanguratsu identifikatu zituzten. Batetik, euskaraz gaiaren inguruan hitz egiteko erabiltzen dugun hiztegia, neurri handi batean, erdaretatik datozen maileguek osatzen dute —gehienetan, ingelesetik eta gaztelaniatik—. Bestetik, euskarazko hitzak bilatu

edo sortu baino gehiago, erdaretako hitzak gure hizkuntzaren kodeetara egokitzea da joera —adibiderik garbiena: *queer* > *kuir*—. Nolanahi ere, bada kolektiboan identifikatutako behar bat: kode propio bat sortzeko beharra, hizkuntza eta kultura hegemonikoetatik datozen hitzak gure hizkuntzara egokitzeaz harago.

Estrategia horretan, itzulpenak eta itzultzaileok badugu zer eskaini, eta *Mari-mutil handi baten bluesa* hortxe kokatu behar da: Zabaltzak «butch» terminoaren baliokidetzat «mari-mutil» erabili zuen, bai izenburuan, baita nobelan zehar ere. Neurri batean, zaharkitutako terminoa da «mari-mutil», baina jatorrizkoaren eta itzulpenaren artean dagoen denbora-jauzian oreka bilatzeko beharra zegoen. Iraganari lotutako terminoa izan arren, hitza ez da ezezaguna; izan ere, erabaki horrek bat egiten du mugimendu transbibollomari ezaugarritzen duen beste joera batekin: historikoki irain gisa erabili izan diren hitzak gureganatu eta izendatzaile gisa erabiltzea, hots, beste zentzu —eta toki— bat ematea. Bestalde, erabaki horren atzean, terminoaren erabilera suspertzeko ahalegina ere badago.

Hitzei zentzu berri bat emateaz gain eta erabilera bera suspertzeaz gain, itzulpenak beste izendapen batzuk sortzeko atea irekitzen digu batzuetan. Ildo horretatik, aztergai dugun nobelan, itzultzaileak *he-she* izenarekin topo egin zuen jatorrizkoan; euskaldunok badugu genero-marka bat edo beste erabiltzea saihesteko ihesbidea, baina *he-she* izenaren atzean dauden errealitateak biltzeari ezin zaio ihes egin. Horregatik, *Mari-mutil handi baten bluesa*, «he-she»-ak «emazte-gizonak» dira.

Arauen azterketaren garapena

Arauen azterketari heltzerakoan, kontuan hartu beharreko lehen gauza zera zen: Feinbergekin *Stone Butch Blues*en itzulpenak egiteko ezinbesteko baldintzak argi eta garbi utzi, eta hala jaso zituen 2014an egindako edizioan, hau da, jatorrizkoaren xx. urteurrenaren harira egindako edizio berezian.

Lehenik, beraz, jatorrizko testua azken edizio hori baino ezin daiteke izan; bigarrenik, itzulpena publikatzen duen argitaletxeak argi eta garbi utzi behar du itzulpen bat dela eta Feinberg dela autoreak; hirugarrenik, irabazi-asmorik gabe egin behar da itzulpena, eta paperezko edizioaren prezioa ekoizpen-gastuen arabera eta gastu horiek estaltzeko ezarri behar da; laugarrenik, ezin zaie hitzaurrerik egin beste hizkuntzetako edizioei —itzultzaileei soilik ematen die baimena, hizkuntzarekin lotutako erabakiak azal ditzaten—; azkenik, itzulpenaren doako bertsio digital bat bere webgunean publikatzeko eskubidea gordetzen du.

Feinbergen arauak, itzulpen-prozesuan erabakigarriak izateaz gain, egilearen ideologiaren isla dira. Jarraian, arau horiek nola islatzen diren ikusiko dugu, Touryren bitartez.

Hasierako araua

Touryk «hasierako araua» izendatu zuen itzulpen baten egokitasuna eta onargarritasuna determinatzen duen araua, ikusteko ea itzulpenak jatorrizko hizkuntzaren eta kulturaren arauai eusten dien ala xede-hizkuntzaren eta kulturaren arauai. Joera orokor bat detektatzeko balio du, baita mikro-mailako erabakiei erreparatzeko ere; joera edozein dela ere, egokitasunak eta onargarritasunak ez dute paper bera jokatzeko hizkuntza eta literatura txiki bat helmuga duten itzulpenetan. Izan ere, euskarara egindako itzulpenek ezinbesteko papera dute euskal literatura-sisteman: *Mari-mutil handi baten bluesaren* asmoa xede-hizkuntzari, literatura-sistemari eta kulturari ekarpena egitea da, itzultzaileak berak adierazi duenez.

Aldez aurreko arauak

Aurretiazko arauai erreparatzeko —hau da, itzulpena gauzatu aurretik hartu diren erabakiak aztertze—, itzultzailea, argitaletxea, enkargua, helburua, hartzaileak eta itzulpenaren harrera aztertu nituen. Hona hemen alor horietako bakoitzeko ideia nagusiak:

Fermintxo Zabaltzak, euskarazko bertsioaren itzultzaileak, Feinbergekin irudikatzen zituen errealitateekiko konpromisoa sendoa agertu zuen, baita euskal hizkuntza eta kulturarekiko konpromisoa ere; izan ere, nobelaren itzulpena borondatezko lana izan zen hasiera batean, aisialdian egindakoa, ez baitzekien behin bukatuta inork publikatuko zion. Hala ere, hainbat elkarriketatan⁴ adierazi zuenez, euskal kulturaren sumatzen zuen horrelako edukien gabeziak bultzatuta, lanari ekin zion, euskal hiztunei eta kuir komunitatearen memoriari ekarpena egiteko helburuz.

Azkenean, Iruñean egoitza duen Katakarak argitaletxeak argitaratu zuen itzulpena, 2018an; Katakraken euskarazko argitalpenei erreparatuz gero, berehala ikus daiteke gehien-gehienak itzulpenak direla⁵ eta, ondorioz, ezinbesteko papera jokatzeko dutela argitaletxea zein literatura-sistema edukiz hornitzeari dagokionez.

Aipatutako elkarriketatik tiraka, itzulpenak hiru helburu nagusiri jarraitzen zuela identifikatu nuen: memoria historikoarekin lotutako kontakizun bat gurera ekartzea, ekarpen ideologiko zein linguistikoa egitea, eta xede-kulturako literatura-sistema aberastea. Are gehiago, Zabaltzak adierazi zuen nobela gehienek protagonistak Mendebaldeko klase ertaineko gizonak direla egun, eta gutxiak irudikatzen dituztela kanon horretatik urrun dauden errealitateak. Berak egindako itzulpenaren protagonistak, berriz, mari-mutilak, *femmeak*, drag queenak eta sexu-langileak dira.

4. Atal honetako informazioa 2018 eta 2019 bitartean Bizkaia Irratian, Info Zazpi Irratian eta Euskalerrria Irratian Zabaltzari egindako elkarriketatik eskuratu nuen.

5. Azterketa hau amaitu nuenean (2024ko ekaina), hauek ziren argitaletxearen datuak: euskaraz argitaratutako liburu guztiak (59) itzulpenak ziren, eta, gaztelaniaz argitaratutako 52 lanen artean, 42 itzulpenak ziren.

Beraz, nobelaz gain, itzulpena ere bada memoria historikoari dagokion ariketa, eta bazter-tutako identitateak erdigunean jartzekoa. Horregatik, hartzaileei dagokienez, ez da soilik kuir komunitatearentzako egindako itzulpena: adorea emateko kontakizuna da euskal kuir komu-nitateko kideontzat, baina, irakurlea edozein dela ere, bada historia ikasteko eta bestelako bizi-eredu zein identitateak ezagutzeko bidea.

Itzulpenak izandako harrerari erreparatzeko, komunikabideetan izandako aipamenetan ja-rri nuen arreta.⁶ Oro har, Feinbergen eta itultzailearen asmoen arabera jaso zen lana: generoa-ren muga binarioak problematizatzeko kontakizun gisa, nobela historiko gisa eta zapalkuntzen kontakizun gordin gisa —hainbatetan, gordinkeria horretaz irakurlea ohartarazi ere egiten dute—. Hamaika dira aipamenotan itultzailearentzat agertzen diren esker oneko hitzak, egin-dako ekarpen eta lanagatik.

Jarduerazko arauak

Hautatutako corpusean arreta xeheago jartzeko txanda heldu zen gero, hots, arau matrizialei eta linguistiko-testualei erreparatzekoa. Nire azterketaren zati bat baino ez dut garatuko (zehaz-ki, hiru testu-zatiren adibideak emanen ditut), luzeegi joko bailuke bestela.

Batetik, arau matrizialek testuaren antolaketari eragiten diote; hortaz, jatorrizko testuak itzulpenean izango duen forma baldintzatzen dute. Nire azterketaren arabera, azalaren, libu-ruaren egituraren eta atzeko azalaren alderaketa oso mamitsua da, baina bada egitura aldetik bereziki deigarria den ezaugarri bat. Jatorrizkoan, nobelaren kapituluez gain, beste hamaika pa-ratestu daude: autoreak jatorrizkoaren edizioaren harira egindako oharrak, itzulpenei egindako hitzaurreak, kideei egindako eskaintzak, egile-eskubideen inguruko oharrak... Hots, autorearen eta lanaren ideologia biltzen duten atalak dira. Euskarazko edizioan, «*No “introductions”*» oharraren itzulpena eman zuten, baina beste atalak ez dira gorde.

Bestetik, fokua gehiago hurbildu eta arau linguistiko-testualei erreparatzea izan zen azken urratsa. Bi alderdiri erreparatu nien: itultzaileak egindako oin-oharrei, eta mari-mutil identi-tatea gordetzen duten hiru kategoriari: autopertzepzioa, desira eta sexu-praktikak.

Lehenari dagokionez, nobelan zehar, Feinbergekin ez zuen oin-oharrik erabili. Pertsonaiak eta haiek irudikatzen dituzten errealitateak kontakizunaren bidez ezagutuko ditu irakurleak, baita erreferentzia kultural guztiak ere. Euskarazko itzulpenean, Zabaltzak 11 oin-ohar erabili zituen, hiru helbururekin: jatorrizko hizkuntzan eta letra etzanez eman zituen hitzak azaltzeko, euskaraz mantendu ezin ziren hitz-jokoak azaltzeko, eta erreferentzia kultural batzuk argitzeko. Ildo horretatik, aipagarria da gaztelaniazko itultzaileek hartutako erabakia: nobelaren kapitu-luen zatian, 47 oin-ohar gehitu zituzten, identitateari lotutako zenbait erreferentzia azaltzeko, eta, hainbatetan, ekintzaileen definizioak ere txertatu zituzten.

6. Argitaletxeak 2018ko maiatzetik 2020ko apirilera bitartean itzulpenaren 20 aipamen jaso ditu komunikabideetan; aipamen horiek izan dira harrera aztertzeko ardatza.

Bigarrenari dagokionez, nolabaiteko inbutu-lana egin behar izan nuen. Feinbergekin identitate konplexu eta intersektionalak eraikitzen ditu, generoa, desira eta gorputzaren esperientziak estu lotuz. Identitate horiek nola eraiki eta itzuli ziren aztertzeo, pertsonaiaren ahots narratibotik abiatuta, aipatutako hiru dimentsioak izan ziren bidea: autopertzepzioa, desira eta sexu-praktikak. Hiru ardatz horiek, pertsonaia nagusiaren subjektibotasunari forma emateaz gain, liburu osoaren iruditegia ere egituratzen dute. Beraz, adierazpen horiek gordetzen zituzten testu-unitateak hiru kategoriatan multzokatu, taulatan ipini —euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenen parean, eta testuingurua labur azalduta—, eta errepresentazio horiek mantentzen, indartzen, indargabetzen edo ezabatzen ote ziren aztertu nuen. Hona hemen ardatz horien azterketari dagokion adibide bana (artikulu honetarako egokituak):

Autopertzepzioaren aldetik, besteen begiradari erreparatzea baino esanguratsuagoa da pertsonaiek berek beren identitateari buruz zer eta nola esaten duten aztertzea, agentzia baitute: oso nabarmena da nola Jessek ez duen emakume kategoriarekin bat egiten, eta hor sartu behar duen bakoitzean zeinen kontraesan gogorrak dituen. Gaztaroan hasten da sentimendu hori adierazten, eta bizitza osoan zehar izango du lagun (edo etsai):

Autopertzepzioa 1. testu-zatia: eredu falta		
Testuingurua		
Jessek, gaztaroan, aitaren arropak janzten ditu, ezkutuan. Hala, etorkizunean izango duen itxura irudikatzen saiatzen da; hainbatetan, aldizkariak begiratzen ditu, eredu bila. Behin, honako hau hausnartzen du:		
JT EN	XT EU	XT ES
16. or.	34. or.	36-37. or.
I couldn't find myself among the girls. I had never seen any adult woman who looked like I thought I would when I grew up.	Ezin topatu nuen neure burua nesken artean. Sekula ez nuen emakume heldurik ikusi handitzerakoan neuk izan nahi nuen itxura zuenik.	No me identificaba con ninguna de ellas. Nunca había visto una mujer adulta que fuera como creía que iba a ser yo al hacerme mayor.
Estrategia	Indartu	Mantendu
Azalpena		
Jatorrizkoan zein gaztelaniaz, pertsonaiak <i>think</i> eta <i>creer</i> aditzen bidez irudikatzen du etorkizuna. Euskaraz, ordea, <i>nahi izan</i> aditzak pertsonaiaren borondatea indartu eta agentzia erakusten du. Beraz, uste dugu errepresentazioa indartu egiten dela euskarazko itzulpenean, eta gaztelaniazko itzulpenean, berriz, mantendu.		

Desiraren ildotik, hura definitzeak beste azterketa bat behar luke: nola irudikatu eta itzuli den erreparatzea izan zen helburua. Nobela osoan zehar, problematikoa bezain indartsua da desira: hainbatetan, ezkutatu beharreko zerbait da; beste batzuetan, komunitate barruko *butch-femme* harremanak egituratzen ditu. Beraz, desirak ere genero-kategoriari ihes egiten die:

Desira 5. testu-zatia: <i>femmeekiko</i> desira		
Testuingurua		
Frankie beste mari-mutil batekin oheratzen zela jakin zuenean, harengandik urrundu zen Jess. Urte asko igaro ondoren, berriro elkartu dira bi lagunak. Berriro aurkitze horretan, elkar ulertze aldera, luze hitz egiten dute desirari buruz. Hona hemen Jessen egiten duen hausnarketa:		
JT EN	XT EU	XT ES
300. or.	423. or.	468. or.
But what gets it for me is high femme. It's funny—it doesn't matter whether it's women or men—it's always high femme that pulls me by the waist and makes me sweat.	Baina erakartzen nautenak high <i>femmeak</i> dira. Bitxia da: ez du inporta emakumeak edo gizonak diren; beti dira high <i>femmeak</i> gerritik hartu eta izerdiarazten nautenak.	Pero lo que me pone son las high femmes. Es gracioso, no importa que sean hombres o mujeres, pero siempre son las high femmes las que hacen que se me vaya la vista y empiece a sudar.
Estrategia	Mantendu	Indartu
Azalpena		
Hiru kasuetan, Jessiek high <i>femmeak</i> —oso-oso femeninoak diren <i>femmeak</i> — maite ditu, berdin dio gizonak ala emakumeak diren. Gaztelaniaz erabili duten lehen aditzak indartu egiten du adierazpena, hau da, lagunarteko erregistrora egokitu ziren itzultzaileak; «pulls me by the waist» horretarako ere irtenbide bat baino gehiago baliatu zituzten itzultzaileek: esanahi literala mantendu zuen Zabaltzak, eta jatorrizkoak iradokitzen duen sedukzioaren aldetik jo zuten gaztelaniazkoek.		

Azkenik, sexu-praktiken aldetik, aipatu beharra dago hura metaforen bidez adierazteko bideak oparoak direla literaturan; batzuetan, izan ere, hura ez adierazteko bidea dira: Ibon Egañak koordinatutako *Desira desordenatuak: Queer irakurketak (euskal) literaturaz* (2010) lanean, euskal literaturan egindako errepresentazio lesbikoen inguruko azterketa jaso zuten Sareinak taldeko kideek, «Mila balitz lamia... lesbianismoa eta euskal literatura» kapituluan. Bertan, joera nagusiak eman zituzten argitara: harreman lesbikoak inozenteak, errugabeak eta heldugabeak balira bezala irudikatzen dira (2010: 141). Sexu-praktikak eta desira esplizituki

adieraztea baino ohikoagoa da jolasarekin, laguntasun estu-estuairekin edo elkarri txirikorda-kilima-laztanak egitearekin lotutako metaforen bidez irudikatzea identitatea.

Eleberrian, aitzitik, Feinbergekin luze eta zabal kontatzen ditu sexu-praktikak, modu esplizitu, infantilizatzen edo lausotzen dituzten metaforarik gabe. Izan ere, sexu-praktikei erreferentziak egiteko orduan, oso bestelako metaforak baliatzen ditu:

Sexu-praktikak		
9. testu-zatia: sexua eta motoak		
Testuingurua		
Jessek Milli ezagutuko du taberna batean; Milli <i>femmea</i> eta sexu-langilea da, eta Jessen maitale bihurtuko da: tabernan elkar ezagutu ondoren, Jessen motoan elkarrekin igo, eta une horretan hasiko da bien arteko harremana. Honela kontatzen du Jessek bien artekoa:		
JT EN	XT EU	XT ES
114. or.	164. or.	180-181. or.
The way two women relate on a motorcycle is part of their sex together —and she was very, very good on a bike. [...] Slow dancing at dawn, making fierce love, leaning together as one with the motorcycle into a deep curve —.	Bi emakume moto batean erlazionatzen diren modua beren sexu harremaneko zati da ; eta oso-oso ona zen motoan. [...] Egunsentian dantza mantsoan, sexuan sutsu, bat eginik bihurgune batean motoarekin bezala ...	La forma en que dos mujeres se relacionan sobre una moto es parte del sexo que tendrán después , y ella era muy muy buena sobre la moto. [...] Bailábamos lento, teníamos sexo duro, nos inclinábamos a la vez en la moto al coger una curva cerrada .
Estrategia	Mantendu	Mantendu
Azalpena		
Motoan egiten duten bidaia nolakoa, halakoa da sexu-praktika. Jatorrizkoan eta euskarazko bertsioan, bidaia sexuaren parte da. Gaztelaniaz, «después» horrekin, beste denbora bat markatu da, bi ekintza bereizi, baina metaforaren elementua berdin-berdin mantendu da. Bigarren zatian ere bada alde txiki bat, baina, nolanahi ere, ondorioa berbera da: motoaren metaforaren bidez, konplizitate sexuala irudikatu da.		

Horrela, hamar testu-zatiren adibideak bildu nituen azterketan, hiru ardatzen inguruan, joera orokorretara heltzeko. Testu-zatiak ez nituen ausaz hautatu, noski, eta mikro-mailako azterketa da, baina zatiok adierazgarriak dira identitatea irudikatzeko eta itzultzeko moduari dagokionez; azterketaren mugak ere aitortu behar ditut: corpora handitu behar litzateke iden-

tifikatutako joerak berresteko. Zenbait irudikapen arindu edo indartu egiten dira itzulpenean, baina emaitzek argi uzten dute irudikapen horiek gordetzea dela helburua eta horren garrantziaz jabetuta egindako itzulpen-lana dela.

Ondorio batzuk

Sexu- eta genero-identitate disidenteez egun dugun kontzepzioaz jabetzeko, ezinbestekoa da itzulpen-prozesuetan zer gertatzen den aztertzea eta diziplinak duen ardurarekin tentuz jokatzeari. Kasu honetan, azterketa konparatiboaren emaitzak pozgarriak dira, oro har Feinbergen ideologiari eta identitate disidenteen errepresentazioari eusten diolako itzulpenak. Pozgarria diot, zeren, itzulpen guztiak hala behar luketen arren, estereotipoek eta homofobiak itzulpen asko hondatu dituzte, gizartea hondatzen duten modu berean.

Nolanahi ere, nahiago dut oraingoan tarterik ez eskaini horri, eta itzulpenaren boterea berriaz azpimarratu: gure diziplinak ezinbesteko papera jokatzen du sexu- eta genero-identitate disidenteak eraikitzeke orduan, eta funtsezkoa da gaiari heltzea itzulpen-ikasketetan. Azterketa gehiago behar dira beste arlo batzuk jorratzeko; adibidez, kultura eta hizkuntza hegemonikoe-tatik ez datozen errepresentazioekin zer gertatzen den ikusteko, hizkuntza-norabideak aldatzeak informazio oso baliotsua eskaini baitezake. Betiere, «orientazio sexual» edo «homosexualitate» kategorietatik askoz harago, subjektuen identitatea ezin baita hautu sexual indibidual batean bildu, ezta mugatu ere.

BIBLIOGRAFIA

- ALVAREZ, Amaia & FERNANDEZ, June (2023). *Mariokerrak. Nola esanlizan bollera euskaraz*. Txalaparta.
- BAER, Brian James & KAINDL, Klaus (2018). *Queering Translation, Translating the Queer. Theory, Practice, Activism*. Routledge.
- BUTLER, Judith (1990). *Gender Trouble. Feminism and the Subversion of Identity*. Routledge.
- CASTRO, Olga (2008). Género y traducción: elementos discursivos para una reescritura feminista. *Lectora*, 14, 285–301.
- FEINBERG, Leslie (1993). *Stone Butch Blues*. Estatu Batuak: Firebrand Books.
- (2018). *Mari-mutil handi baten bluesa*. Katakarak.
- (2021). *Stone Butch Blues*. Levanta Fuego.
- ITURREGUI-GALLARDO, Gonzalo (2023). Permagel/Permafrost: Lesbian Desire and its Translation. *Mutatis Mutandis. Revista Latinoamericana de Traducción*, 16 (1), 166-181. <https://doi.org/10.17533/udea.mut/v16n1a10>
- LOBTINIÈRE-HARWOOD, Susanne (1991). *Re-Belle et Infidèle. La traduction comme pratique de réécriture au féminin. The Bilingual Body. Translation as a rewriting in the feminine*. Women's Press. Les éditions de remue-ménage.
- LÓPEZ, Ártemis (2019). Tú, yo, elle y el lenguaje no binario. *La Linterna del Traductor*, 19, 142-149.
- (2020). Cuando el lenguaje excluye: consideraciones sobre el lenguaje no binario indirecto. *Cuarenta Naipes. Revista de Cultura y Literatura*, 3, 295-312.
- MARTÍNEZ PLEGUEZUELOS, Antonio J. (2018). *Traducción e identidad sexual: Reescrituras audiovisuales desde la Teoría Queer*. Editorial Comares.
- SANTAEMILIA, José (2018). Sexuality and Translation as Intimate Partners? Toward a Queer Turn in Rewriting Identities and Desires. BAER, Brian James & KAINDL, Klaus; *Queering Translation, Translating the Queer. Theory, Practice, Activism* (11-26). Routledge.
- SAREINAK (2010). Mila balitz lamia... lesbianismoa eta euskal literatura. EGAÑA, Ibon (koord.), *Desira desordentauak: queer irakurkeak (euskal) literaturaz*. (87-154). Utriusque Vasconiae.
- TOURY, Gideon (1995). The nature and role of norms in translation. *Descriptive Translation Studies — and beyond*. John Benjamins Publishing Company. <https://ebookcentral-proquest-com.are.uab.cat/lib/uab/reader.action?pq-origsite=primo&ppg=61&docID=673082>

- VIDAL CLAROMONTE, África (2008). Que no nos arranquen la lengua. CALEFATO, Patricia & GODAYOL, Pilar. *Traducción. Género. Poscolonialismo*. La Cirujía Ediciones, 85-92.
- VILLANUEVA, Iván (2019). Abrir paso a las masculinidades gais en la Traductología / Opening the Way to Gay Masculinities in Translation Studies. *Asparkía. Investigación Feminista*, 35, 129-150.
- VILLANUEVA, Iván & CHAUME, Frederic (2021). Revisión sistemática de bibliografía sobre traducción audiovisual y estudios LGBTQ+ (2000-2020): dimensiones epistemológica y metodológica. *Hikma*, 20(2), 95-126.
- ZABALTZA, Fermintxo (2018/6/1). «*Mari-mutil handi baten bluesa*» *Euskalerria Irratian*. Euskalerria Irratia.
- (2019/7/14). «*Mari-mutil handi baten bluesa*» *Info Zazpi Irratian*. Info Zazpi Irratia. <https://soundcloud.com/katakrak54/mari-mutil-handi-baten-bluesa-info-zazpi-irratian>
- (2019/4/19). *Fermin Zabaltza «Mari-mutil handi baten bluesa»ri buruz BIZKAIA IRRATIAN*. Bizkaia Irratia. <https://soundcloud.com/katakrak54/fermin-zabaltza-mari-mutil-handi-baten-bluesari-buruz-bizkaia-irratian>